

**2008KO OTSAILAREN 28AN UDALBATZA OSOAK GINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia

HILABETEA: Otsaila

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Malu Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Jon Kortaberria Lasa
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Alfonso Segade Gonzalez
M^a Pilar Vispo Chamosa
Manuela Uranga Segurola

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu du, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak

1.- AURREKO AKTAK. 2008ko urtarrilaren 31ko eta otsailaren 19ko aparteko bileraren eta otsailaren 19ko aparteko eta premiazko bileraren akten berri eman ondoren, PPko ordezkariak adierazi du lehenengo akta berak ez duela onartu behar, batzaraldian ilegalizatutako plataformak parte hartu duelako.

2008ko otsailaren 19ko aparteko eta premiazko bileraren aktari buruz esan du berak ez duela ezer azaldu beharrik, bilera horretan parte hartu ez zuelako. Jarrera berdina azaldu dute, PSE-EE/PSOE eta EBko ordezkariak

2008ko urtarrilaren 31ko akta bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ, PSE-EE/PSOE, EA, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 3 (PSE-EE/PSE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da 2008ko urtarrilaren 31ko akta.

2008ko otsailaren 19ko aparteko bileraren akta bozkatu da eta bildutakoek aho batez onartu dute.

Azkenik, 2008ko otsailaren 19ko aparteko eta premiazko bileraren akta bozkatu eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, EA)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Bozketan ez dute parte hartu PSE-EE/PSOEko bilerara etorritako bi ordezkariak, EBko bi ordezkariak eta PPko ordezkariak.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA. 26 Areati buruzko Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren aldaketa puntualari hasierako onespina ematea.

Alkateak, Aitor Aldasoro hirigintza batzorde buruari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 26 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea.

Onartzeko aurkeztu da, Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren 26 Areako aldaketa puntuala.

Aldaketa kudeaketa baldintzei buruzkoa da eta zehazki honetan datza:

- 26.1 UE unitate egikaritzea desagertzea.
- Salbatore hotel-jatetxea handitzea egungo eraikinari beste bat atxekiz, 26.1 JA izeneko jarduera isolatuaren bidez.

OINARRI JURIDIKOAK

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 artikulua eta honekin lotuta dauden 90 eta hurrengo artikulak, izapidetzeari dagokionean.
- Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,1c) artikulua, organoaren eskuduntzari dagokionean.
- Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 47,3i) artikulua, onartzeko quorumari dagokionean.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren 26 Areako aldaketa puntualari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Erabakia jendaurrean jartzea hilabeteko epean, dagokion iragarkia, lurralde historikoaren aldizkarian, Diario Vasco eta Berrian argitaratuz.”

Une honetan, M^a Pilar Vispo Chamosa sartu da batzarraldira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- ERREKURTSOA EBAZTEA. Auzoetako HAPBren behin betiko onespenerarekiko aurkeztutako birjarpen helegitearen ebazpena.

Alkateak, Aitor Aldasoro hirigintza batzorde buruari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: birjarpen helegitearen ebazpena.

AURREKARIAK

1.- 2007ko azaroaren 29ko datarekin auzoetako HAPBri behin betiko onespenera eman zitzaion eta alegazioak aurkeztu zituenei erabakia jakinarazi ondoren, JUAN GARIN ALDASORO jaunak birjarpen helegitea aurkeztu zuen ondorengo adieraziz:

- Beasaingo udalak hartutako akordioak 2/2006 Legearen 70. artikuluan ezarritako baldintzak Astigarreta auzoan ez ditu errespetatzen esaten da.

- Akordioak “Udalak 2005ean hartutako konpromisoa zokoratzen” duela adierazten da.

- Berriaz aipatzen da “Plan Bereziak aipatutako Legearen 3.3.c) y 4.3d) eta e) artikuluetan” ezarritakoak arbuiatzen dituela.

2.- 2008ko otsailaren 6an, udal arkitektoak dagokion txostena egin du eta ondorengo dio:

“Aipatutako 2/2006 Legearen artikulua irakurrita, sinatzen duen teknikariak Berraztertze Errekurtsoren titularrak alegatu nahi duenaren aurkakoa ondorioztatzen du.

...”Hirigintza Antolamenduko Plan Berezia erabili ahal izango da, halaber, Plan Orokorreko dokumentuetan jasotako hiri lurzorua antolamendu xehekatua aldatzeko”.

Mugaketaren egokitzapena, hiri lurzoruaren 500m2 inguruko salbuespenarekin, honako hauen ondorioa da: aldaketa, Astigarreta Eremuaren antolamendu xehekatua, eta gaur egun nagusiki baratzetako eta larrerako erabilitako lurren erabilera eta sailkapena babestea.

3. Artikuluaren 3.c) atalaren edukia Plan Bereziaren helburu nagusia da. Hau da, dentsitate gutxiko eraikitze barreiatua saihestea; hartara, hirigintza izaerako eskaera guztiak gaur egungo guneko historikoetatik gertu elkartu dira.

Amaitzeko, 4. artikuluan 3.d) eta 3.d) atalei dagokienez, nire ustez, Plan Bereziak ez du aipatutako eskubideen aurka egiten eta ez die eragiten; aitzitik, nabarmenki bermatzen dituela esango nuke.”

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. JUAN GARIN ALDASORO jaunak, auzoetako HAPBren behin betiko onespenerari aurkeztutako birjarpen helegitea ez onartzea, txosten teknikoan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarren. Ebazpen honen berri interesatuari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsioen aipamena eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

4.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. Emakumeen nazioarteko eguna.

Alkateak, ondorengo erakunde-adierazpenaren berri eman du:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

2008ko Martxoaren 8a

HITZAURREA

Azken udal hauteskundeetatik, emakume zinegotzien eta emakume Alkateen kopurua 879 eta 49koa da, hurrenez hurren, hau da, ordezkari guztien %38,5 eta %19,52, EUDELEk bildutako datuekin bat etorritik.

Kopuruetan izandako igoera horrek bilakaera positiboa erakusten du; horren haritik, bilakaera azkartu egin da, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legean aurrikusitako berdintasun-neurriak lehenengo aldiz aplikatu direnetik. Baina ez dugu ahaztu behar berdintasunaren eskakizunak, eta, beraz, Euskal Legea bera, gizartean zein instituzioetan, toki mailan eta Europa eta nazioarte mailan, bultzatutako ekintza ugariaren emaitza dela.

Oraindik bide luzea geratzen zaigu egiteko, eta berdintasun politiken helburu nagusietariko bat, oraindik ere, emakumeak erabaki-guneetan orain baino gehiago izan daitezen bermatzea da. Aurrerapenak ez dira parekotasunari dagokionez bakarrik neurtzen, eta ez dira ordezkari-tza-politikara mugatu behar.

Bide horretan, beste herrialde batzuetan tokiko erakundeekin izan dugun lankidetzaren oso probetxugarria dela egiaztatu ahal izan dugu.

Hori dela eta:

1) Kontuan hartu dira:

1.1.- Duela 25 urte, Pisan, toki eta erregio esparruko emakume hautetsien lehenengo Europako Biltzarra egin zen, emakumeak eta Europako Erkidegoa izenburupean.

1.2.- Tokian Tokiko Bizitzaren Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Gutun Europarra egin eta onartu zen 2006an.

1.3.- Europako adierazpen gehiago ere badago erabaki-guneetan gizon eta emakumeen partaidetza bidezkoa izan dadin aldarrikatzeko, esate baterako, 1992ko Atenaseko Adierazpena, emakumezko ministroek, lehenengo ministroek eta estatuburuak sinatutakoa, edo 1996ko Erromako Adierazpena, zeinetan parekotasunaren garrantzia nabarmentzen den demokrazia suspertzeko eta herritarrek erakunde demokratikoetan duten konfidantza areagotzeko baldintza gisa.

2) Aintzat hartu dira:

2.1.- Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarraren helburua da "tokiko eta erregioetako gobernuak animatzea tokiko

bizitzan gizonen eta emakumeen berdintasun printzipioa ezartzeko konpromiso ofiziala har dezaten, bai eta ekintza planak prestatu eta aplikatu ditzaten ere, beren eskumen eta zerbitzuen barruan berdintasuna bultzatzeko, bizitzako esparru guztietan genero berdintasuna bultzatzeko eta, era berean, genero estereotipoei aurre egiteko eta genero diskriminazioaren kontra borrokatzeko”.

2.2.- Gaurko dataz, Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra ia 600 udalek sinatu dute European, eta horietatik 26 behintzat euskal Udalak dira.

2.3.- Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra praktikan jartzeko Pisan duela gutxi egindako biltzarrean, Europako Udaletako eta erregioetako hainbat agintarik, euskal Udaletakoak barne, berdintasunaren alde toki esparruan egindako ekintzak ebaluatzeko eta nabarmentzeko aukera izan da.

2.4.- Arrakasta hori lortzeko behar-beharrezkoa izan da tokian-tokian Udalen elkarrekin Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra zabaltzeko eta aplikatzeko pazientzia handiz egindako lana.

3) Hori guztiori dela eta, hauxe da gure adierazpena:

3.1.- Beharrezkoa da Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra sendotzea, baliabide politiko eta praktiko legez, eta, horregatik, oraindik ere sinatu eta aplikatu ez duten euskal Udalak gonbidatu egin nahi ditugu sinatzera eta bertan adierazitako gomendioak praktikan jartzera.

3.2.- Nahitaezkoa da toki esparruan erabakiak hartzeari dagokionez gizonen eta emakumezkoen artean berdintasunezko ordezkaritza eta partaidetza bultzatzea, indarrean dauden berdintasun legeak zehatz betetzen direla begiratu eta emakumeek ardurako postuak lortzea eta postu horietan izatea zailtzen duten oztopo objektibo eta subjektiboak kentzeko ahalegina eginez.

3.3. Behar-beharrezkoa da toki esparruan berdintasun politikak sendotuko dituzten neurriak bultzatzea, eta, horretarako, Udalak dira erakunderik garrantzitsuenak, Udalen ekintzek eragin zuzena baitute pertsonen eguneroko bizitzan.

3.4. Nahitaezkoa da Udal esparruan genero politiken zeharkakotasuna areagotzeko bidean aurrera egitea, Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarraren, Emakumezko eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako Euskal Legearen eta esku-hartze programa eta ekintzetan eredugarriak diren beste baliabide batzuen helburu nagusiak gauzatu ahal izateko berdintasun planak egitea bultzatuz.

3.5. Funtsezkoa da, Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarrak gomendatzen duenez, jabeakuntza politikak diseinatzea, emakumeen eskari eta beharrianak hobeto ordezkaturata egon daitezen, elkarrean mugimendutik, Berdintasun Kontseiluetatik edo beste parte-hartze organo batzuetatik dagokien protagonismo guztia emanez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da, EUDELeke “emakumeen nazioarteko egunaren adierazpen instituzionalari” atxikitzea.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

ABIADURA HANDIKO TRENA

Andoni Antxia, EAeko ordezkariak jakin nahi du abiadura handiko trenaren trazatua dela eta zundaketak egiteko garaian lur-jabeei ezer esan gabe egin diren.

Alkate jaunak (EAJ): “Eusko Jaurlaritzatik afektatutako lur-jabeen zerrenda bidali zen eta eskatu ziguten lur-jabe horiei deitzeko zundaketa eta desjabetze izapidetzearen berri emateko. Horrela egin zen eta jabe batek ezik denek sinatu zituzten okupaziorako aktak. Olazar baserriko terrenoaren jabeak ere sinatu zuen, baina badirudi ondoren, terreno horien zati bat beste pertsona bati saldu ziola eta nahiz eta pertsona honen anaiak baimena eman, gertatu zen zundaketa egitera joan zirenean baimena eman zuena oso egoera txarrean zegoela. Orduan erabaki zuten zundaketa beherago egitea, hain zuzen ere, Olazar baserriko terrenoetan, hau da, hasieratik sinatu zuen pertsonaren terrenoetan.

Behin betiko proiektua onartu arte ezin da desjabetze-prozesuarekin hasi, izan ere, orduan jakingo da zehatz mehats zeintzuk diren jabe eta terreno afektatuak.

MURUMENDIKO ATEZAINA

Fernando Boada, PSE-EE/PSOeko ordezkariak galdetu du ea nola dagoen Murumendi ikastetxerako atezainaren kontratazioa eta noiz bete behar den zentzu honetan Udalbatzak hartutako erabakia.

Alkate jaunak (EAJ): “Guraso elkarteekin hainbat bilera izan ditugu eta otsailaren bukaerako erantzun baten zain gaude. Udaletxeko langile batzuei ere eskaini zaie lanpostu hori eta erantzunaren zain gaude. Lanean jarraituko dugu, Murumendi ikastetxeari erantzun bat emateko. Ez gara atzeratzen ari, baizik eta irtenbide bat eman nahi dugu.

IKASTETXEKO MATRIKULAK

Fernando Boada, PSE-EE/PSOeko ordezkariak adierazi du derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeetan matrikulatzeko epea hastear dagoela eta ea Udalak arlo horretan bere lankidetzaz azaltzen duen.

Alkate jaunak (EAJ): “Hezkuntza Sailak du arlo horretan eskuduntza eta sekula ez digu zentzu horretan ezer eskatu. Ez dugu horretan parte hartu behar. Ez dugu nahi eztabaida politikoa gai horrekin nahastu.

DULCE MARIA LOINATZ KALEAN EGIN BEHARREKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Alkateak ezagutzera eman du, Iberdrolako postea kentzeko lanak atzo zirela eta lekualdatze lanak lau aste iraungo duela. Ondoren CONSTRUCCIONES AMENABAR, babes ofizialeko etxeak eraikitzen hasteko moduan egongo da.

ERRAUSKAILUA MARTXAN JARTZEKO KUDEAKETAK

Alkateak, Juan Martin Aldareguia, Sasietako lehendakariari eskatu dio azaltzeko zaborren Kontsorzioa martxan jartzeko kudeaketak nola doazen.

Juan Martin Aldareguia jaunak (EA): “Hemos realizado diversas reuniones entre las mancomunidades, defendiendo las distintas posturas existentes. La Mancomunidad de San Marcos ha aceptado de mala gana realizar su aportación al Consorcio para la puesta en marcha del Plan General para gestionar los residuos sólidos urbanos.

La Mancomunidad del alto Deba también es reacia a realizar la aportación acordada. Hay una postura radical porque cuando se eliminó el horno que utilizaban, se les ofreció depositar las basuras en el vertedero de la Mancomunidad Sasieta hasta el año 2009.

En la mancomunidad de Tolosaldea no habían constituido la Junta, desde que cambiaron los representantes municipales, pero finalmente lo han hecho.

Txingudi, quería ir por libre, pero también ha aceptado el incorporarse a la Junta.

El vertedero de San Marcos, se va a cerrar para principios de verano y los vertederos de Lapatxe, Zarautz y Sasieta recibirán los residuos.

Nuestras instalaciones, afortunadamente, gracias a la labor de los servicios técnicos de la Mancomunidad Sasieta, a los que desde aquí felicito, se encuentran perfectamente y además producen energía. En el 2007, producimos 3.250.000 Kw, con un beneficio para Sasieta de 40.000.000 de pesetas.

El Ayuntamiento de Donostia ya ha hecho la reserva de los terrenos para instalar la incineradora. Nosotros prevemos cerrar el vertedero alrededor del 2.010, pero todo irá en función de la incineradora. Para los residuos que no van a poder ser incinerados, se ha hablado con Vizcaya y Navarra, pero están reacios a recibir.

Habrá tres o cuatro puntos de transferencia para llevar los residuos a la incineradora y uno de ellos será Sasieta. En cualquier caso esas estaciones de transferencia serán menos problemáticas que el vertedero. La basura que llegará de las estaciones de transferencia, se pasará a unas tolvas, para su triturado, y de ahí se pasa a unos depósitos en donde la basura recibe un tratamiento de biosecado. Antes de pasar la basura a la incineración, se pasará por un sistema en el que se extrae la materia metálica para que la incineración sea más limpia. Las cenizas irán a un vertedero de inertes.

En cuanto al vertedero de Sasieta señalar que una vez sellado, pasará a ser zona verde destinada a esparcimiento, pero en la que no se podan plantar árboles.

Eta tratatzeko gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta berrogeita hamabian amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.